



Txalaparta ekitaldi nagusia gaur Tilosetan

TXALAPARTA festako azken eguna izango da gaur, asteazkeneko eta atzoko emanaldien ondoren. Gaur, arratsaldeko 18:00etan hasiko da festa eta arratsalde osoan txalaparta doinuak gozatzeko aukera izango da Tiloseta inguruan. Ilutnzeko 21:00etan, berriz, herri afaria izango da eta ondorenean hasiko da saio nagusia, Zuaznabar eta Goikoetxea familiako kideen sarrerarekin. /3

'Gelditour' AHTaren kontrako ekimena Hernanin

ABIADURA Haundiko Trenaren aurkako ekimen ibiltaria da *Gelditour*, eta etzi, astelehena, Hernanin izango da, 17:00etatik 19:00etara. Horren bueltan AHTaren aurkako eguna deitu du abiadura haundiko trenaren aurkako taldeak, eta AHTaren aurkako astea, Gazte Asanbladak. /2

Hegatz buzeo taldea Getarira dioa bihar

HERNANIKO Hegatz urpekari taldeak bihar egingo du denboraldiko lehenengo irteera, Getarira. Denboraldirako hamasei irteera aurreikusi dituzte, bihartik irailera, ia igandero. Hegatz taldekoak ez dira urpeko kontuetan hasi berriak, dagoeneko 27 urte baitaramazkite itsasora ateratzen. Baina, denborak ez die ilusiorik jan eta aurrean ere gogo biziz daude itsasoan murgiltzeko. /7

❖ KANTUZ EGUNA

Kantuz abesbatza gaur Milagrosan

Kantuz Eguna ospatuko du gaur Hernaniko Kantuz abesbatzak. Kontzertu berezia antolatu du horretarako, erreperitorio zabalarekin eta denetarikoz piezekin. 19:30etan, Milagrosan. ||

❖ EREÑOTZU

Auzoko batzarra

Auzoko batzarra izango da gaur Ereñotzun. Apaizetxe berritua ikusteko aukera izango da eta zertarako erabili nahi den ere eztabaidatuko da. Auzo udalaz ere hitz egingo dute. Gaur 10:30etan, Apaizetxean. ||

❖ ANTZIOLA

Sagardo Eguna gaur Antzian

Sagardo Eguna izango da gaur Antzian. Hernaniko sagardotegi guztietako sagardoak probatu ahal izango dira, pintxoekin gain. Gaur goizeko 11:30etatik aurrera, EPAko plazan. ||



Zikuñako Amako kideak, arropa berriz

ZIKUÑAKO Amako kideek aurtengo arropa berriarekin ateratu zuten joan den astean argazki ofiziala, Zinkoenean. Koadrila ederra elkartu ziren eta asteroko moduan buelta dezentea egin zuten. Aste buru honetan ere, izango da errepidean nahiz mendi bizikletan ibiltzeko irteera. /7

GAUR KRONIKAN

AHTaren aurkako ekimenak /2

Tibeti buruzko jardunaldiak /2

Txalaparta festa /3

'Kulturola' euskal gunea /4-5

Kirolak: buzeoa, errugbia, futbola, gimnasia, erremontea, bola, pala... /6-7

Eskelak /7

Musika eskolako ikasleak intrumentua aukeratzen /8



kardaberaz kalea 49 behe. tfnoa: 943 55 33 80
e-posta: hugo@juanamari.org

Zure landareentzako denda
berria Hernanin:

-Kultiborako sistemak:

- Hidroponikoak
- Aeroponikoak
- Lurrekoak

-Landare aromatikoak

-Kultiborako konplementuak:

- Barukoak
- Kanpokoak

-Zure kultiborako aholkularitza

Zatoz ezagutzera!!!



HAZI
TA
HEZI

Abiadura Haundiko Trenaren aurkako ‘Gelditour’ ekimen ibiltaria Hernanin

Astelehenean iritsiko da Hernanira. Herriko AHTaren aurkako taldeak eta Gazte Asanbladak proiektuaren aurkako ekimenak antolatu dituzte.

ABIADURA Haundiko Trenaren aurkako eguna deitu du AHTaren aurkako Hernaniko taldeak etzirako, eta Gazte Asanbladak aste osoan zehar antolatu ditu AHTaren aurkako ekimenak. Izan ere, etzi, astelehena *Gelditour* ekimen ibiltaria Hernanira iritsiko da, eta Plazan egongo da 17:00-etatik 19:00etara. Hilaren 1ean Tuteratik abiatu zen Abiadura

Haundiko Trenaren Aurkako ekimena eta maiatzaren 31n iritsiko da Donostiara. Antolatzaileen hitzetan, Euskal Herrian geroz eta jende gehiago dago AHTaren proiektuaren aurka.

Aste osoan ekimenak
Gazte Asanbladak aste osoan antolatu ditu ekimenak: astelehenean *Gelditour* etorriko da;

asteartean, bizikleta martxa egingo dute 19:30etan; asteazkenean hitzaldia izango da Biterin 19:30etan; ostegunean, parodia egingo dute herrian eta kontzentrazioa izango da Renfen, 19:30etan; ostiralean manifestazioak eta kontzertuak izango dira (Trifulka, Ania eta talde sorpresa), eta larunbatean Donostiara joateko deialdia egin dute.

Bihar Ordiziara

BIHARKO martxa deitu du Ordizian AHTaren aurkako taldeak, hasiak diren obretara joateko. Hernaniko AHTaren aurkako taldeak dei egin du Ordiziara joateko. Igande goizeko 11:00etan egin dute zita Hernaniko apeaderoan denak batera joateko, «desobedientzia eginez».

❖ GAZTE ASANBLADA

Astigarragara gaur

Astigarragako Gazte Asanbladak antolatuta gazte olinpiaden itxiera jaialdia izango da gaur Astigarragan. Goiz partean herri kirol frogak izango dira eta Hernaniko Gazte Asanblada bertan izango da. Herri kirolez gain, triki poteoa, bazkaria, kantu saioa eta kontzertuak izango dira. Bertara joateko zita gaur goizeko 10:15etan egin dute, Gaztetxean. ■

❖ XALAPARTA ELKARTEA

Urteurreneko afaria

Xalaparta elkarteak urteurreneko bazkaria egingo du ekainaren 14an, 26garrena. Menu dotorea jarriko dute 30 euroren truke. Bazkalostean mus txapelketako sariak banatuko dituzte. Ekainaren 8an bukatuko da izena emateko epea. ■

❖ KIROLDEGIA

Igerilekuak goizean itxita

Igerilekuak gaur itxi egingo dituzte goizeko 11:00ak arte. Eskola kiroleko frogak izango baitituzte. ■

Ur ludoteka bihar

Ur ludoteka izango da bihar kiroldegiko igerilekuan, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Haurrek eta gurasoek uretako jostailuekin ibiltzeko aukera izango dute. ■

❖ UDALA

Diru laguntzei buruzko bilera astelehenean

Kultur elkarteentzako diru laguntzen araudia aurkeztuko dute astelehenean, arratsaldeko 18:30etan, Biterin. ■

Txotx denboraldiari buruzko azken bilera, astelehenean

Txotx denboraldiaren inguruko azkeneko bilera egingo da astelehenean. Bileretan

parte hartu duten adin tarte guztietako kideak biltzea nahi lukete, baita gaian interesa duten herritarrek ere. Astelehenean, arratsaldeko 19:00etan, Biterin. ■

❖ KONTZERTUAK

‘The Zepo’ gaur Urnietan

The Zepo Hernaniko rock taldeak gaur Urnietan joko du, txosna gunean. Gaueko 22:00etan hasita. ■

❖ EUSKAL HERRIA ZUZENEAN

Jaialdirako laguntza eske

Idauze-Mendin Euskal Herria Zuzenean jaialdia izango da ekainaren 27, 28 eta 29an. Antolatzaileek jendea estimatuko lukete laguntzeko: parkina antolatu, txosnan lan egin, bazkari eta afarietarako mahaiak jarri, zaborrak bildu eta bestelako lanak egin beharko lirateke. Lagundu nahi duenak ekainaren 6a aurretik eman behar du izena, Dobera euskara elkartearen. ■

❖ SAN JOANAK

Tanborradako entsaioak

Santa Barbara elkarteak tanborradako entsaioak hasiko ditu maiatzaren 29an, 18:30etan. Parte hartzeko izena eman behar da eta horretarako telefono honetara deitu behar da: 943 55 27 63. Danborreroek 7 urte beteta izan behar dituzte eta galtza txuriak, larruzko gerrikoa eta oinetako ilunak eraman behar dituzte. Sukaldariek 4 urte baino gehiago izan behar dituzte. Elkarteak dei egin die etxean trajeak izan eta erabili behar ez dituztenei, trajeak itzultzeko. ■

❖ KARBONERA GUNEA

Dokumentala asteazkenean

Karbonera gunean *Haizea eta sustraiak* dokumentala jarriko dute asteazkenean, Txiki-ri buruzkoa. Senide, lagun, kide eta

abokatuen testigantzak biltzen dira. Horrez gain, migrazioaren fenomenoa ere aztertzen du. Dokumentalaren zuzendaria Iñaki Agirre da eta ekoizlea *Haizea eta sustraiak* kultur elkarte. Arratsaldeko 20:00etan, Karbonera gunean. ■

❖ BERRIAK ELKARTEA

Tabernarien bilera

Berriak elkarteko tabernarien bilera izango da astelehenean, arratsaldeko 16:30etan, Biterin. Honakoak izango dira gaiak: San Joanetako ordutegia, txotx denboraldiko balorazioa eta San Joanetan zehar egin nahi diren ekintzak. ■

❖ KAMISETAK

Atletismoko kamisetak prest

CD Hernanikoek jakinarazi dutenez, Hernaniko atletismoko kamisetak prest daude nahi duenarentzat. Horretarako astelehenean joan behar da atletismo pistetara, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. ■

❖ GOIZ EGUZKI

Gandiarara irteera

ekainaren 5etik 14ra

Goiz Eguzki zentro sozialak Gandiara irteera antolatu du ekainaren 5etik 14ra. Hiru izarretako hotel batean egingo dute lo, hondartzaren ondoan. Gela bikoitzak izango dira, otordu guztiak barne (pentsio osoa). Bidaiaaren prezioa 510 eurokoa da. Goiz Eguzkitik jakinarazi dutenez, oraindik ere badago izena emateko aukera. ■

❖ EMAKUME ZENTROA

Eskulan erakusketa Biterin

Elkano 17 Emakume Zentroko kideek egingo dako eskulanak ikusi ahal izango dira maiatzaren 26tik 30era bitartean, Biteri kultur etxean, 16:00etatik 20:00etara. ■

Tibeti buruzko jardunaldiak datorren astean

TIBETI buruzko jardunaldiak izango dira datorren astean Hernaniko Udalak eta Kooperazio Taldeak antolatuta. Lehenengo ekitaldia asteartean izango da, Tibeteko errealitateari buruzko hitzaldia. Agurtzane Berasarte, Karmele Osa eta Thupten Palbar izango dira hizlariak. 19:30etan hasita, Biterin. Maiatzaren 27tik 29ra argazki eta mandala erakusketa izango da. Maiatzaren 31n, larunbata, Tibeteko artisautza ikusteko eta bertako jakiak dastatzeko aukera izango da, goiz partean, Plaza Berrin. Ekainaren 4an, Tibeteko egoera soziopolitikoari buruzko hitzaldia emango du Mikel Aramendik. Arratsaldeko 19:30etan, Biterin. ■

Saharako umeekin begirale aritzeko lan poltsa

UDAN Saharako haurrekin begirale lanetan aritzeko lan poltsa osatu nahian dabil Hernaniko Udala. Azaldu dutenez, asmoa da aurtengo udara eta datozen udaretarako ere lan poltsa osatzea. Beraz aurtun asmorik izan ez arren, hurrengo urteetarako interesa izan dezaketenek ere eman dezakete izena. Eskuerak ekainaren 9a aurretik aurkeztu behar dira Udal Erregistroan. Honakoa da aurkeztu beharrekoa: eskaera orria, karnetaren kopia, titulazioa, EGA edo baliokidea, Saharako haurrekin lan egiteko proiektua (gehienez ere bost orri eta puntuagarriak izan daitezkeen dokumentuak). Informazio gehiago udaletxean edo www.hernani.net-en.

Saharako haurrak etxean hartzeko deia

Udalak dei egin die herritarrei Saharako haur bat etxean hartzera animatzeko. Azaldu duenez, izena emateko epea maiatzaren 30ean bukatuko da eta ez da oraindik familiarik animatu. Udalak azaldu du aurreko urteetan etorri diren haurrak etortzeko gogoz daudela, baina horretarako familiak behar direla. Bestalde, gogorarazi du Saharari buruzko erakusketa hasiko dela astelehenean Biterin. ■

Euskal Herriko eskualde guztietako txalapartariak eta Tarragonako 'Txala' taldekoak ariko dira gaur Tilosetan txalaparta jotzen

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, musikariak ariko dira kalean barrena, eta txalaparta erromeria Tilosetan. Herri Afaria izango da 21:00etan, eta ondorenean emango zaio hasiera saio nagusiari.

HOGEITA Bigarren Txalaparta Festak gaur du azken eguna, eta urteroko moduan ekitaldiz gainezka dator. Atzo Txalaparta Party Apartan ibili zirenek deskantsatzeko aukera izan dezaten, arratsaldeko 18:00etan hasiko da festa herrian barrena. Musika Eskolako dultzaina jole, txistulari, albokari eta trikitariak festa giroa jarriko dute Kaxkoko gunen desberdinetan eta Hernaniko sagardotegien laguntzarekin sagardoa banatuko dute txalaparta festako antolatzaileek.

Ondorenean, txalaparta erromeria izango da Tilosetan. Aspaldiko ohitura da hau Hernaniko Txalaparta Festan, eta bertan saio libreak egiteko aukera dute txalapartariak,

betiko bikoteekin nahiz beste batzuekin. Nahikoa txalaparta jo ondoren, herri afaria izango da eta segidan hasiko da txalaparta festako saio nagusia, aurten ere parte hartze zabalarekin:

- Hernaniko Bertso Eskolako bertsolariak.
- Zuaznabar eta Goikoe-txea txalapartari familietako txalapartariak.
- Arabako Txalapartariak.
- Kirikittun Amikutzeko txalapartariak.
- Bianako Txakozu txalaparta taldea.
- Sestaoko Tx Eskola taldea.
- Gipuzkoako Txalapartariak.
- Hernaniko Musika Eskolako Ttakun Ttan Ttakun taldea. II



Txalaparta saio libreak izango dira gaur, Tilosetan.



Ezkerrean, Sestaoko txalapartari eskolako txalapartariak, eta eskubian Harkaitz Martinez de San Vicente txalaparta jolea.



Asteazkenean eta atzo txalaparta emanaldi bereziak

TXALAPARTA Festak asteazkenean eta atzo izan zituen ekitaldiak, eta gaurkoarekin bukatuko da. Orain artekoak emanaldi bereziak izan dira. Asteazkenean, Nomadak TX dokumentala ikusteko aukera izan zen, Oreka TX taldeko Harkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoaren eskutik. Zenbait herrialdetan barrena, txalaparta lagun, egin-

dako bidaia biltzen du munduari buelta eman dion dokumentalak.

Atzo, berriz, Sestaoko Tx taldearen emanaldia izan zen, *Hiru ipuin liburu bakarra*. Txalapartaren bidean hasi berri diren ikasle hauek, emanaldi berezia prestatu dute, lehenengo aldiz. Txalapartaz gain, albokak eta trikitiak ere izan zuten parte. II

<i>Hernaniko Udala</i>		<i>Hernani-Gipuzkoa</i>
IRAGARKIA		
Hernaniko Udalak "Oporrak bakean 2008-2009" programarako begiraleen lanpoltsa osatzeko oinarriak onartu ditu.		
Interesdunek eskabidea aurkeztu ahal izango dute 2008ko ekainaren 9ra arte , eskabide normalizatua aurkeztuz Udal Erregistro Orokorrean.		
Informazio gehiago: udaletxean edo udal web orrian: www.hernani.net .		
Hernani, 2008ko maiatzaren 23a ALKATEA		

'Kulturola', edo Euskal Gunea izenarekin, «kafe antzoki moduko» gune bat sortzeko lanean ari da Hernanin herritar talde bat, euskal kultura ardatz izango duena eta herritarren beharrei erant-

zungo diena. Egitasmoari forma emateko bilera ugari egin dituzte orain artean, eta aurrera ere bide luzea izango da, Hernanirako aproposa zein mota-tako gunea den zehazteko. Proiektuaren aurkezpe-

na m
zeko
tarr
dea



Kulturolaren inguruko lan-taldea, atzo, Larramendi kaleko lokalean, asteroko bileran. Lehen proiektu proposamena hurrengo astebur-

Euskal kultura oinarri izango

BADIRA pare bat urte, Euskal Gunea egitearen ideia sortu eta herritar talde bat horretan lanean ari dena. Proiektu haundia da, ideia asko dira eta guztiak lotzeak eta lortzeak bide luzea eskatzen du. Hala ere, lehen bilera haietan gauza

bat argi geratu zen «proiektua aurrera ateratzea zaila bada ere, talde sendoa osatuz eta jendearen eta udalaren inplikazioa lortuz gero, egingarria da». Kulturolako lan-taldeak oinarri horri tiraka bost talde edo batzorde osatu ditu

(Programazioa, Azpiegitura, Kudeaketa, Juridikoa eta Ekonomikoa) eta batzorde horiek lehen proposamena egin dute, herriko eragile desberdinei azaltzeko. Orain artekoa oinarritzko proposamena da, eta lanak eta denborak eman-

go diote *Kulturolari* benetako izaera eta forma, lan-taldeko kideek nabarmendu dutenez.

Aurkezpen bilera, maiatzaren 31n izango da, gaur zortzi, goizeko 11:00etan, Sandiusterrin. Bilera irekia da interesa duen guztiarentzat.

Zutabe nagusiak

Euskal Gunea proiektuaren zutabe nagusi batzuk zehaztuak daude. Besteak beste:

- Euskal kultura bultzatzeko gunea izango da. Beste hizkuntzak eta kulturak baztertu gabe, ardatz nagusia euskera

Hernaniko Udala  *Hernani-Gipuzkoa*

Aurtengo udan Saharako haurrik ez Hernanin?

Famili hartzaile bila gabiltza. Animatu!

BILERA INFORMATIBOA: MAIATZAREN 28AN 19:30EAN BITERIN.

INFORMAZIOA	Udal lankidetzaren arloa
ETA	943-337017 - 943-336802 - marijo-m@hernani.net
IZEN EMATEA	Epea: maiatzak 30

Aurpegi bakoitzak bere estiloa dauka  AURPEGI TRIANGULATUA Betaurreko luzeak eta dibertigarriak zure aurpegiko angeluak konpentsatzeko	biokbi optika Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86  AURPEGI OBALATUA Betaurreko txiki eta ausartekin zure pertsonalitatea azpimarratuko duzu	Aukeratu zureak!, aholkatuko zaitugu  AURPEGI BOROBILA Betaurreko errektangularrak zure bolumenak ekilibratzeko Alejandra Alcibar Optiko Optometrista, 12.244 zkia.
--	---	--

R.P.S. 174/06

naiaztaren 31n egingo da, larunbatarekin, goi-
o 11:00etan, Sandiusterrin. Interesa duten herri-
ak bertara gonbidatuta daude, orain arteko bi-
eta aurrera begirako pausoak ezagutzeko.



ruan aurkeztuko dute Larramendin.

duen gunea

izango da.

- Jabetza publikoa eta herri-koia izango da.
- Antolaketa eta kudeaketa parte-hartzailea izango du.
- Herritarren zerbitzurako espazio irekia izango da, eta ordutegi zabalekoa.

1) Programazioa

Programazio batzordeak, gu-
nean egingo diren edo bilduko
dituen ekitaldi eta jardunen
hurbilpen bat egin du «irekia,
eta arian arian osatu beharre-
koa». Oraindik programazioa
zehazteko goiz dela uste du
batzordeak, eta proposamen
oinarritzko bat egin du. Pro-
gramazioa kultur arlokoa
izango da lan-taldeko kideen
hitzetan «kultura zentzu zaba-
lean ulertuta». Alde batetik
«sormenerako leku» izatea
nahi dute, disziplina desberdi-
netako herriko talde eta pert-
sonek bertan entsaiatu eta
esperimentatzeko gunea.

Horrez gain, «heziketarako
gune» izatea ere aurreikusi
dute: «taldeak hazteko aukera
eman behar da (...); herritarrei
talde horien jardueretara hur-
biltzeko aukera eman behar
zaie (...); eta nola ez, haurrak eta
gazteak, diziplina horietara
hurbilduko dira».

Horrez gain, «erakuslehio»
izateko helburua ere azpima-
rratu dute, herriko nahiz he-
rritik kanpoko «eskaraz egiten
den kultur produkzioaren»
erakuslehio izatea.

Aulkiak kendu eta jarri egin
ahal izango diren eta zutik
600-800 lagun kabituko
diren aretoa izango luke

2) Azpiegitura

Azpiegitura batzordeak zehaz-
tu du, ezinbestekoa dela erai-
kin egokia edukitzea, Guneari
jarri zaizkion helburuak bete-
tzeko. Horrelako proiektu ba-
tean, eraikina egin arte ezauga-
rriak zehaztea zaila dela badio-
te ere, zenbait ezaugarri izan
behar dituela zehaztu dute.
Besteak beste:

- 600-800 pertsona zutik kabi-
tuko liratekeen areto nagusia;
jarri eta kendu egin ahal izan-
go diren aulkiekin, eta gela txi-
kiagoa behar denean, txikitze-
ko manpara edo pareta mugi-
korrekin. Tabladu edo agerto-
kia, tamaina desberdineta-
egokitu daitekeena.
- Taberna.

- Tailerrak eta gela balioaniz-
tunak.

- Areto Txikia.
- Kanpoko gunea.

Kokalekua

Lan-taldeak osatutako txoste-
nak nabarmentzen du, gun-
e hau Hernani erdigunean ego-
tea ezinbesteko baldintza de-
la. Adibide gisa, leku apropo-
sa Goiz Eguzki ingurua izan
daitekeela ere zehazten du:
erdi gunetik bertan eta ondo
komunikatua; bista onak eta
leku berdeak inguruan, zen-
bait ekitaldi kanpoan egiteko
modua. Bizilagunik ez.

3-4-5) Kudeaketa, izaera juridikoa eta finantziarioa

Kulturola gunea Udalak eta
herritarrek elkarlanean egin
beharreko proiektutzat dauka
lan-taldeak eta gunearen ku-
deaketan, izaera juridikoan eta
finantziarioan ere hori nabar-
mendu dute. Finantziarioari
dagokionean, Instituzioen es-
ku uzten dute, eraikina egin,
azpiegitura mantendu eta pro-
gramazioari dagozkion diru
laguntzak ematea. Ekitaldie-
tako diru-sarrerak, taberna-
koak eta abar, berriz, esku pri-
batuek gestionatzea proposa-

Aspaldiko eskaera, kultur aretoa

HERNANIN aspaldiko eskaera bat da kul-
tur ekitaldietarako areto batena. Gaur egun
Biteri eta Sandiusterrin dira horretarako
prestatuta dauden areto itxi bakarrak, 200
lagunetik behera hartzeko prestatuak biak
ere. Jende gehiago biltzen duten ekitaldie-
tarako, berriz, kiroldegiko pelotalekua era-
bili izan dute Hernaniko zenbait taldek,
baina arazo haundiak ditu: batetik ez du
sonoridade ona, eta bestetik kirol ekitaldie-
tarako dago prestatua eta azpiegitura ego-
kirik ez dago, ez karga deskargarako, ez
hotz garairako eta ezta argiztapen, erosota-
sun eta abarrerako ere. Kiroldegiko beheko

pista ere erabili izan da behin edo behin,
baina emergentzizko aterik ez dago pista
hustutzeko eta Barne Sailak ez du uzten
jende asko hartuko duen ekitaldirik bertan
egiten.

Kulturolarena, kultur areto batetik ara-
tago dijoan egitasmoa da, baina oinarrieta-
ko bat 600-800 lagun hartuko lituzkeen
areto nagusi bat izatea da, lan-taldeak osa-
tutako txostenak nabarmentzen duenez.
Orain arteko ideien arabera, Bilbo, Duran-
go, Ondarru, Elgeta edo Donostiako Kafe
Antzokien antza du Kulturolaren egitas-
moak. II

MASTERkitchen
DISEINUA ZURE SUKALDEAN

BALANTXA

ANTZIOLA 12

943 57 61 15



ERABILI EZAZU
BERRIAK TXARTELA

◆ URPEKARITZA

'Hegatz' buzero taldea Getariara dihoa bihar, denboraldiko lehenengo irteeran

Hernaniko 'Hegatz' buzero taldeak bihar egingo du udako lehenengo irteera. Igandero egingo dituzte Getaria, Pasaia eta Oriola, besteak beste.

DESIATZEN daude Hegatz buzero taldeko kideak biharko eguna ailegatzeko, izan ere, aurtengo denboraldiko lehenengo irteera egingo dute. Negua gozo-gozo pasa ondoren, ez baita giro itsasora ateratzeko, bihar itsasoko ur freskoan sartzeko prest dira.

Igandero irteera

Bihartik aurrera, igandero igandero, urpean ibiliko dira, han eta hemen. Biher eta datorren igandean Getariara joango dira, eta iraileko azkeneko aste-ara arte Pasaia, Oriola eta Hondarribira joango dira, hango urpeko bazterrak ezagutzera.

Irteera irekiak

Hegatz taldekoek irteerara gonbidatu nahi dituzte urpekaritzan interesa dutenak. Jakina, horretarako prezioa da urpekaritza ikastaroa egina izatea, dagokion titulazioa izatea eta Federazioaren lizentzia izatea. Hegatzeko kideekin harremanetan jarri nahi izanez gero, beren egoitzara jo behar da, Jauregi auzoko eskola zaharra, ostiralean, 20:00etatik aurrera. ||



27 urte daramazkete Hegatz taldekoek ur azpiak ezagutzen.

Aurtengo irteerak

Maiatzak 25.....	Getaria
Ekainak 1.....	Getaria
Ekainak 8.....	Pasaia
Ekainak 15.....	Oriola
Ekainak 22.....	Hondarribia
Ekainak 29.....	Oriola
Uztailak 6.....	Pasaia
Uztailak 13.....	Getaria
Uztailak 20.....	Hondarribia
Uztailak 27.....	Oriola
Abuztuak 24.....	Pasaia
Abuztuak 31.....	Getaria
Irailak 7.....	Oriola
Irailak 14.....	Getaria
Irailak 21.....	Pasaia
Irailak 28.....	Getaria

ESKOLA KIROLA - EMAITZAK



SASKIBALOA

Infan. mutil.	Urumea-Arrasate	26-17
Benja. mutil.	Elizatxo B-Elizatxo C	8-40
Benja. mutil.	Elizatxo A-Inmaculada	20-12
Benja. mutil.	Urumea A-Langile A	68-14
Benja. mutil.	Langile D-Langile B	18-30
Benja. mutil.	Urumea B-Langile C	24-18
Infan. mutil.	Langile-Langaitz	42-62

FUTBOLA

Benja. Neskak	Langile D-Urumea B	1-2
Benja. Neskak	Langile B-Langile A	0-3
Benja. Neskak	Langile C-Elizatxo A	2-2
Infantil nesk.	Urumea-Zarautz	1-2
Infantil nesk.	Elizatxo- Ama Guadalupekoa	2-1
Infantil nesk.	Antigua LA-Langile	5-2
Alebin. Nesk	Sto. Tomas-Elizatxo B	5-6

PALA

Alebin. nesk.	Langile A-Imaz Bertso.	20-8
Alebin. nesk.	Langile B-Pello Errota	17-20
Infan. Nesk	Urumea B-Txingudi	25-12
Infan. Nesk	Urumea A-Loinazpe A	17-25

◆ GIMNASIA ERRITMIKOA

Hernaniko taldea Gipuzkoako txapeldun

Hernaniko gimnastak Zarautzen izan ziren joan den aste-buruan, B mailako eskolarteko Gipuzkoako txapelketan. Taldea Langileko taldea izan da Gipuzkoako txapeldun. Banaka ere hernaniarrak ez ziren batere gaizki ibili: Maider de las Herasek 4garren postua lortu zuen; Ane Maciciorrek 5garren postua; Malen Martinezek 7garrena, eta Maider Lopezek 8garrena. ||



Gipuzkoako txapeldunak.

◆ ESKOLA KIROLA

Hernaniko hiru ikastetxe

Gipuzkoako txapelketako finaletan

Eskola Kirolean fin aritu dira hernaniarrak eta horren emaitza da gaur Hernaniko hiru ikastetxetako taldeak Gipuzkoako finala jokatzera. Palan, alebinetan, Langile Ak Pello Errotaren kontra jokatuko du, Azpeitian, arratsaldeko 16:00etan. Palan, infantil mailan, Urumea Bk Loinazpe Aren kontra jokatuko du, Azpeitian, arratsaldeko 17:00etan. Futboleko, alebinetan, Elizatxo Bk Jakintza Cren kontra jokatuko du, goizeko 11:00etan, Donostian. ||



Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROI PATRONATUA



◆ PALA

Pala txapelketako partidak gaur

Kirol patronatuak emakumeen aurreneko pala txapelketa antolatu du. Gaur hasiko da txapelketa eta honako partidua jokatu dira: goizeko 10:00etan, Loli-Amaia/Axun-Agurtzane; eta goizeko 11:00etan, Mari Jose-Koro/Ildoia-Iratxe. ■

◆ BOLA

Bihar Urnietara

Hernaniko bolariak Urnietara joango dira bihar Gipuzkoako txapelketako azken tiraldira. Joan den igandean Zerainen izan zen txapelketa honetako bigarren tiraldia eta aurrenekoa Segurako M. Agirre izan zen, 49 brilarekin. Saillapen nagusian Ategorrietako Xabier Lazkano izan zen, 96 brilarekin. Saillapeneko aurreneko hernaniarrak honakoak dira: M. Arrozpide 89 brilarekin, J. Ugalde 86 brilarekin,

M. Burugain 86 brilarekin, JM^a Usabiaga 84 brilarekin, A. Miner 83 brilarekin, A. Santos 83 brilarekin eta F. Galarraga 80 brilarekin. ■

◆ ZIKLOTURISTAK

Mendiz Perurena aldera, eta errepidez Bedaia

Zikuñako Ama zikloturista taldeak bi iteera antolatu ditu bihar. Mendi bizikleta taldea Astigarraga, Perurena, Susperregi eta Ugaldetxon barrera ibiliko da (40 km). Zita goizeko 09:00etan egin dute Zinkoenean. Bestalde, errepidez Bedaia joango dira zikloturistak, bihar (71 km). ■

◆ ERRUGBIA

Finala gaur

Euskadiko Kopako finala jokatu dute Hernanik eta Getxok, gaur, Zarauzko Asti Zelaian. Goizeko 11:30etan hasiko da finala. ■

◆ ERREMONTA

Thermotechnic txapelketa bihar hasiko da Galarretan

Gaur hastekoa zen txapelketa bihar hasiko da Galarretan. Gaur ere erremonte jaialdia izango da Hernaniko frontoian.

GAUR hastekoa zen Thermotechnic txapelketa bihar hasiko da Galarretan. Aurreneko partidua honetan Ezkurra eta Zeberio IIk jokatu dute alde batetik, koadroko aurrelaririk onenak. Aurrez aurre izango dituzte Jokin Etxabe, Hernanin bizi den azkoitiarra eta Altuna II. Partidua biharko jaialdiko bigarrena izango da.

Thermotechnic txapelketa bi taldetan banatutako erremontisten arteko ligarekin hasiko da. A taldean daude: Ezkurra-Zeberio II; Altuna II-

Etxabe eta Urriza-Iriarte. B taldean koadroko atzelaririk onenak diren Urrutia eta Lizaso daude eta haiekin batean, Juaristi-San Miguel eta Uterga-Etxeberria III.

Talde bakoitzaren barruan liga moduko bat jokatu da eta talde bakoitzeko aurreneko bi bikoteak semifinalera joango dira.

Galarretan igandero jokatuko dira txapelketa honen barruko partidak. Biharko partida arratsaldeko 17:00etan izango da.

Gaurko jaialdia

Gaur ere erremontez gozatzeko aukera izango da Galarretan. Jaialdiko estelarrean, jaialdiko bigarren partiduan, Ezkurra-Badiolak jokatu dute Zeberio II-Urrutiaren kontra. Gainerako partidua honakoak izango dira: Larrea-Martinez I/Ibarzabal-Gastelu; Bitoria-Eizagirre-Agirresarobe-Etxeberria III; eta Bereziartua-Olazar/Matxin III-Agirrezabala. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da. ■

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA

Gorengo maila	Anaitasuna-Hernani	Txerloan	Bihar 16:30
Gazteen Ohorezko liga	Hernani-Elgoibar	Zubipen	Bihar 15:30
Kadeteen Ohorezko liga	Aloña Mendi-Hernani	Azkoagain	Gaur 10:00
Infantilak Ohorezko liga	Anaitasuna-Hernani	Txerloan	Bihar 16:00
Alebinak	Hernani-Tolosa	Zubipen	Bihar 11:30

BOLA

Gipuzkoako Kopa	Urnietan	Bihar
Loli-Amaia/Axun-Agurtzane	Kiroldeian	Gaur 10:00

PALA

ERREMONTA

Larrea-Martinez I/Ibarzabal-Gastelu	Galarretan	Gaur 16:00
Ezkurra-Badiola/Zeberio II-Urrutia	Galarretan	Gaur 17:00
Bitoria-Eizagirre-Agirresarobe-Etxeberria III	Galarretan	Gaur 18:00
Bereziartua-Olazar/Matxin III-Agirrezabala	Galarretan	Gaur 19:00

ERRUGBIA

Senior B (Eusk.Kopa. Finala)	Hernani-Gebro	Astin	Gaur 11:30
Kadeteak (Gipuzkoa. Finala)	Hernani-Bera Bera	Astin	Gaur 11:00
Infantila (lagunartekoa)	Torneoa	Konban	Gaur 11:30
Alebinak (lagunartekoa)	Torneoa	Konban	Gaur 11:30
Benamina (lagunartekoa)	Torneoa	Konban	Gaur 11:30

◆ FUTBOLA

Liga azken partiduan Azkoitira

Gorengo mailan, Hernanik ligako azken partidua jokatu du bihar, Anaitasunaren kontra. Hernani saillapeneko 8garren postuan dioa, jokatu dute 33 partiduetatik 12 irabazi, 7 berdindu eta 14 galduta. Partidua arratsaldeko 16:30etan jokatu da, Txerloan. Bestalde, azpimarratzekoa da baita ere, Ohorezko kadete mailan, Hernanik Aloña Mendiren kontrako partidua jokatuko duela, mailaz igotzeko fasean. Partidua gaur goizeko 10:00etan jokatu da, Azkoagainen. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

LEHENENGO URTEBETETZEA

MILAGROS ZUGASTI ETXEBERRIA

ANDREA

(Jose Ramon Ugaldere alarguna)

2007ko maiatzaren 27an hil zen, 82 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartu ondoren

- Goian bego -

Seme-alabak: Javier, Mari Cruz eta Hilario Inchauspe eta Maite eta Enrique Perez; bilobak: Xabier eta Joana, Maider, Iñaki eta Naroa; ezkon anai-arrebak: Jesusa Uranga, Juanita Ugalde eta Jose Alcelay, Rosarito Goikoetxea, Pepita Irastorza, Maite Ugalde eta Eugenio Clemente; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **11:00etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den Urtebetetzeko Mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko maiatzaren 24an

Helbidea: Santa Barbara, 89 - 2.



II URTEURRENA

MIREN ARANZASU EGUILEGOR AGUIRRE

ANDREA

2006ko maiatzaren 24an hil zen, 73 urte zituela

Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Urtebetetze meza, **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **11:00etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan.

Hernanin, 2008ko maiatzaren 24an



II URTEURRENA

MARTIN ALDUNZIN ETXABE

2006ko maiatzaren 27an hil zen, 42 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartu ondoren

- Goian bego -

Bi urte iada, etzaudela munduan
baina zurekin bizitakoak
jarraitzen du guran
Aita, senar, seme, anai eta lagun zoragarri
zuk erakutsitakoak dugu oroigarri
tristurak garaituta maitasunez irri

Urtebetetze meza, **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **12:30etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan.

Hernanin, 2008ko maiatzaren 24an



FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

☎ **TELEFONAK** 1 **Taxiak:** 943 550093 1 **Udaltzaingoa:** 943 248900 1 **DYA:** 943 464622 **Autobusak:** Herri barrukoak:

943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 1

Anbulatorioa: 943 006666 1 **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 1 **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103

✚ **FARMAZIAK** 1 **Egumez:** **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 1 **Gauetz:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022



EGURALDIA
GAUR
↓

Giro oso txarrarekin hasiko da eguna. Laino ugari, ostarteak akaso, eta egun osoan zaparradak. Temperatura jaitsi egingo da eta maximoak 15-18 °C inguruan izango dira.

BIHAR
↓

Giro oso nahasia baina euri gutxiago. Hala ere, arratsaldean zaparradak botako ditu, agian ekaizarekin batera. Temperatura egonkor; maximoak 20 °Ctik gertu.

(euskalnet)



Musika Eskolako ikasleak trikitixa jotzen, asteartean Biterin.

❖ ZINEA BITERIN

‘Dueños de la calle’ helduentzat

Biteriko zine emanaldian *Dueños de la calle* pelikula emango dute asteburu honetan. David Ayer-en pelikula da eta Keanu Reeves eta Forest Whitaker dira aktoreetako batzuk. Thrillerra da eta bere kontrako akusazio bat dela eta, bere bizitzaren ardatz izan den sistemaren aurka joko duen polizia baten istorioa kontatzen du. Emanaldiak gaur, 19:30etan eta 22:30etan, eta bihar, arratsaldeko 19:30etan. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogailuarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Elgoibarko Gaztelekuarekin udaleku itxietara (Mendigorría, uztailak 9tik 16ra) joateko hezitzailea behar da (kontratua) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo gazteleku@elgoibar.org

Baserría hartuko genduke errentan, bi lagunek. Deitu: 656 703 814

Kamarero euskaldun bat behar, astelehenetik-ostiralera, arratsaldean lan egiteko. **Jornada** erdiko kontratua. Deitu: 656 778 803

Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai, 102 CV, kanpinerako prestaturia. 2001 urtekoa, ITVa pasata. Bizikletak eramatekoa, aire egokitua, erremolkerako bola.... Deitu: 686 200 536

Etxea salgai Hernanin. 3 gela ditu, saloia, sukaldea eta komuna. Deitu: 943 55 25 85.

Sukalderako laguntzailea behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559

Pertsona euskalduna behar da Hernaniko tabernan **udaran** lan egiteko. Deitu: 616 589 445

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, 60 m2ko garbiera eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Hamalau instrumentu, hamaika bide

UDAL Musika Eskolak antolatuta, ekitaldia izan zen asteazkenean Biterin, ikasleek aurrerako zein instrumentu aukeratu jakiteko. Zazpi urteko neska-mutilek egin behar izaten dute aukera hori, datoren kurtsoan zein musika instrumentu jo jakiteko. Bite-

riko areto nagusia lepo betez, ikasle eta guraso.

Hamalau instrumentu

Hernaniko Musika eskolan 14 instrumentu jotzen ikasi liteke: biolontxelo, klarineta, gitarra, biolina, pianoa, akordeoia, txistua, alboka, dultzaina, tri-

kitixa, txalaparta, saxoa, perkusioa eta tronpeta. Instrumentu bakoitza nola jotzen den eta zer soinu duen erakusten musika eskolako ikasleak aritu ziren, Iñaki Eguren irakasleak aurkeztuta. Orain, gaztetxoek aukera egin behar dute, zein doinu hartu. ||

Euskara irakasle izan nahi duzu?

aeK

GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA
Euskara irakasteko oinarritzko prestakuntza

Ekainaren 30etik uztailaren 24ra,
Antiguako AEK euskaltegian

Informazio gehiagorako, deitu 943327172 telefonora
(Cipuzkoako AEK)

Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan politian izateko aukera izango duzu



antenas
Telemar

Antenen inguruan
gehiago jakiteko
zatoz Telemar-era

EGOKITU ZURE ANTENA
LURREKO TELEBISTA DIGITALERA



LURREKO
TELEBISTA
DIGITALA

Eskatu ezazu
zure aurrekontua
konpromezurik gabe

DIGITAL+